

Ikerketa psikogenetikoek, bere epistemologiako bi teoria osagarriak bermatzeko balio izan diote Piaget-i.

1) Ezagutza-tresnak hobetu, *haurrak berak* egiten duen erakuntza bati esker hobetzen dira, bere ingurunearekiko harremanen barruan egiten duen erakuntza mentalari esker, hain zuzen. Ondorio pedagogikoa: subjektuak ezin du ikasi, ez baditu eraiki, helerazi nahi zaizkion ezagutzak asimilatzeke era emango dioten eskemak.

2) Adimenaren erakuntza orekatze-prozesu bat izango litza-teke, tartean ezagutu nahi duen subjektua eta honen mementuko ezagutza-tresnetara: makurtzen ez diren ezagutza-objektuak daudelarik. Une bakoitzean, egoera berriek hautsi egiten dute aurrez lorturiko subjektuaren eta objektuen arteko oreka, eta adaptazio berria eskatzen dute. ■ *Pello Huizi.*

Idazle berrien bila

Makina bat aldiz aldarrikatu dugu idazle berrien erreleboaren premia. Euskal idazleen artean aurpegi berriak behar dira. Nekez baizik ez dira ikusten. Idazle berrien premia hau aipatzen soilarekin ikastoletara, unibertsitatera zuzendu ohi ditugu begiak, idazle berrien bat non ikusiko. Idazle berria eta idazle gaztea bat bailiran ikusten ditugu.

Eta idazle bila zaharragotara joko bagenu? Zergatik ez berrogei urterekin idazten hasi, edo hirurogeirekin? Edozeinen baitan liteke idazleren bat lotan. Iratzartzea behar. Eta batez ere beste batzuegan pentsatzen dut, hots, gaztetan (giroak lagunduta edo) idazten zuten eta gerora erabat abandonatu duten horiengan. Ez da sekula beranduegi.

J. B. Etxeberri euskal idazlearen kasuak pentsabidetan jarri nau. Irailaren 25eko Herria astekarian, bere obraz mintzo delarik, aitormen hau egiten du ipar idazle honek: «Hiruetan hogoi urtetara hurbildua nintzan hasi nintzalarik funtsez euskaraz izkiriitzen». Ia hirurogei urterekin hasi eta zazpi liburu argitaratu. Ez dago batere gaizki.

J. B. Etxeberri gehiago ere badagoke gure artean. P. Lafitte bezalako gehiago behar, hitz bihotz-pizgarritz jendea idaztera bultzatzeko. ■ *Joan Alzibar.*

Histori saileko berrikuntza (UEU)

Jasoak ditugu UEUko Histori Sailaren arduradun berriak bidali dizkigun albistek. Uste dugunez, indarberrituxea den sail honetako asmoak benetan jakingarriak dira.